



Zenbat ditu gaur otsailak?





Gaur, otsailak 15 ditu.



Esapide horren egitura laburtua hilaren eguna zehazteko erabiltzen da.

- ❖ Datorren ostegunean, *hilak 22*, beste gai bat jorratuko dugu EHULKUren aholkuan.
- 🌐 Datorren ostegunean (*hilak 22 izango ditu egun horretan*) beste gai bat jorratuko dugu EHULKUren aholkuan.



Ez dugu egitura laburtu horretaz baliatu behar gertaera bat denboran kokatzeko, genitiboaz baizik (NOREN).

@*Hurrengo EHULKUren aholkua otsailak 22an jorratuko dugu.

◆ Hurrengo EHULKUren aholkua otsailaren 22an jorratuko dugu.



Alegia, NOIZ, NOIZTIK, NOIZ ARTE...
adierazteko, genitiboa baliatu behar dugu.

- ◆ Abenduaren 20tik ez dut ikusi.
- ◆ Ekainaren 5era arte Alemanian egongo naiz.

Eta ez:

- @ * Abenduak 20tik ez dut ikusi.
- @ * Ekainak 5era arte Alemanian egongo naiz.



Genitiboa erabili behar dugu denbora-
tarte adierazteko ere.

◆ Azterketak urtarrilaren 23tik otsailaren
9ra izan dira.

Eta ez:

@ *Azterketak urtarrilak 23tik otsailak 9ra izan dira.



Bukatzeko, gogoratu letra xehez idazten direla hilen izenak:

◆ Bigarren lauhilekoa **o**tsailaren 12an hasi da.

@ *Bigarren lauhilekoa **O**tsailaren 12an hasi da.

Eta ez dutela "a" itsatsirik:

◆ Maiatze**an** bukatuko dira eskolak.

@ *Maiatze**a**n bukatuko dira eskolak.

urtarriletik
otsailetik
martxotik
apiriletik
maiatzetik
ekainetik

